

Uztailak 12, ostirala

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

2 barrako puzgarri erraztatzailea biraketako abiadura kontrolarekin + Jaurtimetro atea + Humor amarilloko gladiadoreak.

→ 19.15 - 21.00

O/O koktelgintzako lantegia

Karpan, taldeka, alkoholik gabeko koktelak egiten ikasteko aukera izanen da barman baten eskutik. Tabernariak urteak claramatza mota horretako txapelketetan parte hartzen eta beste edari batzuen aurrean interesgarriak eta ikusgarriak diren alternatibak irakatsiko ditu.

→ 19.30 - 21.00

Afrikako dantzen erakustaldia eta lantegia

Baobab akademiak Afrikako erritmoak ekarriko dizkigu hango kulturaren zati bat erakusten diguten bitartean. Dantzaren bidez gorputz guztia mugituko dugu eta lantegian musikak eraman gaitzan utziko dugu.

→ 20.30 - 22.30

Mini-jaialdia zuzenean

Oso estilo desberdineko bi talde ikusteko aukera izanen dugu eta musika onaz gozatzera gonbidatuko gaituzte: Dúo Didima (folka) eta Nakama Planet (popa, abesti propioak eta bertsoak).



Uztailak 13, larunbata

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

Gaur kuadrillaka antolatuko dira eta puzgarrietan lehiatuko dira. 2 barrako puzgarri erraztatzailea biraketako abiadura kontrolarekin + Wipeout puzgarria + 1vs1 Minifutbol kantxa + "Harrapatu makila" trebezia-jokoa + Tiragoma bikoitz erraldoia puzgarriarekin..

→ 19.15 - 21.00

Herri Kirolen lantegia

Aldez aurretik izena emanda, kuadrillak elkarren artean lehiatuko dira herri-kirolekin -besteak beste, trontza, txingak, sokatira eta zama-jasotzea- lotutako jokoan bidez. Horiek guztiak lehiaketan zein mota horretako lantegietan eskarmentu handia duten Cañamares anaiek gidatuko dituzte.

→ 19.15 - 21.00

Sanferminetako oroigarrien lantegia eta tatuajeak

Gure karpan, txantilo txikiak, paparreko txikiak eta sormenezko txapak egiten dira 2024ko festen oroigarri gisa. Aerografoz egindako tatuajeak ere egiten dira.

→ 21.00 - 22.30

Txurru DJa

DJ gazte honek dagoeneko erakutsi du bere balioa dantza-pistetan eta inork ezinen dio dantzatzeko gogoari eutsi bere erritmoak eta udako arrakastarik handienak entzutean.

Uztailak 14, igandea

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak. Uraren jai

Bi erreiko eta amaieran aintzira duen irristagailu puzgarria urarekin + Aqua Splash jolasa: Tanga + Aqua Splash jolasa: Zizarea + Aqua Splash jolasa: WCa + Aqua Splash jolasa: Puxika jaurtigailua.

→ 19.15 - 21.00

Dekoratu zure zapia lantegia

Lantegi horretan sanferminetako zapia protagonista izanen da eta 2024ko festen oroigarri bihurtuko da. Dekorazio-osagarriekin, koloretako arkatzekin eta distirekin nahierara pertsonalizatzen ahalko dira

→ 19.30 - 20.00

Holi Festa

Indiatik airea kolorez betetzen duen jaialdia dator. Denak eztanda egiten du eta jendeak jaurtitako tonalitateak txaranga erritmoan nahasten dira. Tradizioen eta estiloen nahasketa bat.

→ 20.00h - 21.00

Batukada, Batu'klang taldearen eskutik

Festa erritmo bizian amaituko dugu talde horren eskutik. 16 urte daramatzate musika mota horri balioa emateko.

→ 21.00 - 22.30

Josu Rodríguez DJa

DJ gazteak pistak lehertzen ditu eta zorte handia da sanferminetako Gazte eremuari berriz ere haren eskutik amaiera ematea.

→ 22.30

Gazte eremuaren amaiera

Festetan zehar Gazte eremuaren arduradunak izan direnak taula gainera igoko dira eremuko jardueri amaiera emateko.

Gazte Eremua

PUNTO-SEGURUA:
ZENTZUZ JOKATU ETA GOZATU

UZTAILAK 8

Hiesaren Aurkako Nafarroako Batzorde Herritarra. Laguntza eta sexu-osasunaren sustapena.

Arreta eta erreferentzia GIB-IHESAK infektatutako eta ukitutako pertsonendako eta/edo sexu aniztasunagatik diskriminazioa jasaten duten pertsona eta/edo kolektiboendako.

UZTAILAK 9

PICA elkarte. Bullyinga eta tratu txarrak. Laguntza eta arreta abusuen biktima diren adingabeei. Motorzaleek eta gai horrekin harremana duten pertsonak ematen dute arreta.

UZTAILAK 10

ANTOX elkarte. Substantziekiko eta teknologiekiko adikzioak.

UZTAILAK 11 ETA 12

EHGAM elkarte. Sexualitatea, sexu-orientazioa eta LGTBI+ eskubideak..

UZTAILAK 14

Secretariado Gitano Fundazioa. Ijito-komunitatearen sustapen integrala.

EGUNERO
MANKOMUNITATEKO URAREN
TABERNA EGONEN DA

Gazte Eremua

2024

▼ #SanferminesPamplona

→ Uztailaren 7tik 14ra

Foruen plaza
(12-17 urte)



→ Kontsultatu hemen programazio osoa



Uztailak 7, igandea

→ 19.00

Txupinazoa Izenbarekuak Txarangarekin

Egun horretan inaugurazioa egingen dugu gure Txupinazoarekin. Horretarako, arduradunek agertokitik eguneko jardueren berri eman eta guztiari hasiera emateko atzera kontaketa bat egingen da. Konfetia eta txaranga-musika, sanferminetako klasiko bat.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

Giza futbolin puzgarria, 12 jokalaria + Wipeout puzgarri erraldoia Humor amarilloko lau probekin + 1vs1 Minifutbol kantxa.

→ 19.30 - 21.00

Sanferminetako pankarta egiteko lantegia

Erlantz Xabier Esteban Barrenaren eskutik peñenak bezalako pankarta pertsonalizatu bat egingen dugu Gazte Eremurako. Profesional horrek 20 urtetik gora daramatza peñekin lankidetzan diseinuak sortzen. Karpa eremua.

→ 20.00 - 20.30

Apar-festa

Ordu erdiz Foruen plaza aparrez beteko da. Izugarri ongi pasako dugu denok!

→ 20.00 - 21.00

Bocabeats Comediaren emanaldia

Oso hurbileko eta tokiko ikuskizun batekin, umorea, inprobisazioa eta Beat box soinuak uztartuz, publikoa arazorik gabe bereganatzen dute.

→ 21.00 - 22.30

Hit festa Sangalo DJarekin

DJ showmanak ibilbide bat egingen du azken urteotako arrakasta dantzagarrietan barna.

Uztailak 8, astelehena

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

Jaurtimetro-atea + Humor amarilloko gladiadoreak, oinarri birakariarekin + punteriako 4 jolas-puzgarri.

→ 19.00 - 20.15

Parkour-lantegia eta -erakustaldia

Lantegia eta erakustaldia Riart Company Parkour-taldearen eskutik. Urtean zehar hainbat diziplina artistiko -hiri-dantzak, parkourra eta dantza garaikidea- uztartuz lan egiten duen talde gaztea.

→ 19.00 - 21.00

Fantasiako makillajeko lantegia

Lantegi horretan makilatzen ikasiko dute Tomorrowland makro-jaialdiko makillajeetan inspiratuta. Purpurinak, neoiak eta koloreak, fantasiarekin jolasean.

→ 20.00 - 22.00

360º Kamera

Kamera batek haien inguruan biratzen duen bitartean taldean grabatzeko aukera, bideo labur, dibertigarri eta desberdin bat sortuz.

→ 20.00h - 21.00

K-Pop erakustaldia eta lantegia

Ravel dantza-akademiarekin lankidetzan, lantegi bat egingen dugu Tik-Tokeko koreografiaren bidez, eta Gazte eremuko antzeko adineko taldeen erakustaldiak ikusteko aukera izanen dugu.

→ 21.00h - 22.30

Mikel Sevillano DJa

Iruñeko DJ horrek urteak daramatza taula gainean musika jartzen mota guztietako festa eta ekitaldietan.

Uztailak 9, asteartea

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

Kantxa-barruti puzgarria 3vs3 (saskibaloia + futbola) + "Slalom izotz-pista amerikarra" puzgarri erraldoia + 2 barrako puzgarri erraztatzailea biraketako abiadura kontrolarekin.

→ 19.15 - 21.00

Sanferminetako geocachinga

Gure karpatik geolokalizazio-puntuak bidaliko ditugu taldean lan egin dezaten hainbat pista jarraituz, Iruñean barna festen eta antzinako Iruñearen historia ezagutzeko QRak aurkitzeko.

→ 19.15 - 20.30

Break Dance erakustaldia eta lantegia

Team Rockets Breakaren panoraman urteak daramatzen Nafarroako taldea da, eta oraingo honetan, erakustaldi bat egiteaz gain, gazteekin elkartuko dira lantegi baten bidez.

→ 19.00 - 21.00

Magia gertutik

Patxi magoak ukitu magikoa emanen dio egun horri eta bertaratuakoei zer den egiazkoa eta zer ez galdetuko diote bere buruari.

→ 20.00 - 21.00

Erel y Kuñi

Rapero gazteen bikote honek urte batzuk daramatza agertokietan barna, eta bere letren freskotasuna eta gazteei eragiten dieten arazo eta emozioei buruz hitz egiteko duten modua.

→ 21.00 - 22.30

Silent Party María López DJarekin

Entzungailuekin eta banakako musikarekin egiten den saio berezi hori hiriko erdiguneko aretoetako batean aritzen den DJak gidatuko du.

Uztailak 10, asteazkena

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

"Slalom izotz-pista amerikarra" puzgarri erraldoia + Humor amarilloko gladiadoreak + Jaurtimetro atea.

→ 19.15 - 20.15

Hiri-dantzen lantegia

Iruñeko Breathless Dance Centerrekin lankidetzan, gaur egungo hainbat hiri-dantza ezagutu ditugu: Poppinga, Dancehall, Krumpa, Lockinga...

→ 19.15 - 21.00

Sare sozialen lantegia

are sozialei buruzko lantegian profilak animatzeko istorio eta reel hobeak argitaratzen ikasiko dugu, eta argitalpenen norainokoa eta sareak erabiltzeko orduan dugun erantzukizuna ezagutuko ditugu. Karpan.

→ 20.30 - 22.30

Rock mini-jaialdia

Iruñeko rockaren panoramako bi talde gazte igoko dita taula gainera. Jauja eta Hagoan. Rock estilo bete, gitarra elektrikoak, baxuak eta bateriak ozen-ozen. Bere bideoek, erritmoeak eta abestiek beren gaztetasunak eskaintzen ahal duen indar guztia dute.

Uztailak 11, osteguna

→ 19.00 - 19.15

Aurkezpena

Pantailen bidez zein agertokitik Gazte Eremuko arduradunek eguneko jarduerak aurkeztuko dituzte.

→ 19.00 - 21.00

Puzgarriak

Wipeout puzgarri erraldoia humor amarilloko 4 probarekin + Kantxa-barruti puzgarria bumper pilotekin + Tiragoma bikoitz erraldoia puzgarriarekin.

→ 19.15 - 21.00

Grafiti-lantegia

Gaurkoan Isaias Cruz diziplina anitzeko artista izanen dugu karpan. Artista horrek irudiekin jolastea gustuko du, hala grafitietan nola maila profesionaleko argazkigintzan eta bideoigintzan.

→ 20.00 - 21.00

Zumba masterclassa

TXFitnessekin elkarlanean kalera aterako dugu azken urteotan arrakasta gehien izan duen jardueretako bat: Zumba.

→ 21.00 - 22.30

Demode Quarteten ikuskizuna

Demode Quartet talde nafarrak a capella abesten du, eta batzuetan baseekin eta instrumentuekin ere aritzen dira. Humorea eta musika konbinatzen dituzte eta eszenaratze indartsua dute.